



# BALIOZKO PROPOSAMENA

SEENIST  
Elaia Altuna  
Eneritz Higuero  
Enara Losada  
Saioa Martinez  
Nora Sierra

Baliozko proposamen honetan, ideia berritzaile bat eskaintzeko prest gaude. Jarraian, zehatz-mehatz azalduko dugu taldeko kideoi bururatu zaigun ideia.

Eskaintzen dugun produktua hortzetako eskuila berezi eta praktiko bat da, hortzetako pasta heldulekuaren barruan izango duena. Hortzetako eskuil honek ez ditu behar edo arazo zehatz batzuk konpontzen, baina gure egunerokotasunean gauzak errazten dizkigu. Alde batetik, praktikoagoa da botoi bat sakatzea eta hortzetako pasta automatikoki ateratzea guk hortzetako pasta manualki atera baino. Bestetik, bidaiatzerakoan, espazioa errazten digu, nezeserrean espazio gutxi okupatzen duelako. Hori dela eta, bi produktu eraman beharrean, produktu bakarrean aurreko bi artikulua ditugu.

Gure gizartean, produktu hau existitzen da jada, baina ez da berriro erabiltzekoa, hau da, behin bakarrik erabil daiteke eta ondoren zakarrontzira doa. Guk eskaintzen duguna aldiz, produktu bera da baina egunero erabil daiteke. Ondorioz, gutxiago kutsatuko luke gure produktuak.



Bezeroek gure enpresa, produktu edo zerbitzua aukeratzearen arrazoia hau da: arreta jarri dugu praktikotasunari dagokionez, eta ohartu gara hortzetako eskuila eta hortzetako pasta bat eginda dagoela, baina lehen aipatu dugun bezala, behin soilik erabil daiteke. Horretarako, gure taldeak pentsatu

du baliagarria izango dela egunerokotasunerako baita pertsona helduentzako adibidez, egunero zakarrontzira bota beharrean, sortu produktu bat betirako iraungo duena.

Balio kualitatiboan, diseinua nabarmendu beharreko puntu bat dela iruditu zaigu. Hasteko, eskuila honek botoi bat edukiko du, eta hori sakatzean barruan aurkitzen den pasta gutxinaka-gutxinaka aterako da, hortzetako-eskuilaren filamentuaren erditik. Kanpoaldetik, jada existitzen diren hortzetako-eskuilen diseinu berdintsua izango du, baina seguraski heldulekuaren perimetroa pixka bat handituko dugu

hortzetako pasta sartzeko (hau gehienbat egingo dugu ziurtatzeko pasta ez dela lehenengo erabileran bukatzen, bestela erosotasunaren puntu osoa baliogabetuko litzateke).

Hortaz aparte, hau sortzeko erabiliko dugun materiala honakoa izango da: banbuzko egurra (eskuilaren egiturarako), txemarrak, hortzetako pasta eta kartoia, produktua kartoizko kaxa batekin etortzea pentsatu dugulako (produktua ireki aurretik babestasan maila bat izateko). Gainera, zaporezko pastak eskainiko dizkiegu, adibidez, limoizko zaporea duen pasta. Pasta hori barrualdean egongo denez eta beraz, ez denez ikusgai egongo, zein zapore den jakiteko kanpoko kartoizko kaxak pastaren kolorea izango du, eta noski, zaporearen izena azalduko da horretan ere bai.



Balio kuantitatiboan, prezioa azpimarratu behar da. Hasiera batean, prezioa ez da baxua izango, hau da, hortz eskuilaren merkatuarekin ezin izango du lehiatu, azkenean etekinak atera beharko ditugulako, bestela proposamen guzti hau ez baitzaigu errentagarria aterako. Halere, gutxigorabehera industrian kokatuta gaudenean, prezioa jaitsiko dugu. Prezio nahiko altuarengatik, gehienbat publiko jakin bati zuzenduko diogu proiektua: klima aldaketaz kontziente diren pertsonak, eta ondorioz, gaur egun bambuko eskuilak dituztenak, seguraski gazteak izango direnak (badakigulako belaunaldi gazteak geroz eta interes gehiago hartzen ari direlako gai horretan). Publiko honi gainera, teknologiei ohituta dagoenez, hortzetako pastaren mekanizazioa gustatuko zaiola pentsatzen dugu. Hau guztiarengatik, gure produktuan interesa izango dutela pentsatzen dugu eta beraz, erosi nahiko dutela, merkatuko prezioekin konparatuta gurea altua baldin bada ere.

Halere, badakigu proiektu konkretu honek arriskua duela, azkenean publiko hori ez delako oso handia, eta gainera hortz-eskuila batek behin erosita denbora dezente irauten duelako. Horregatik, hortzetako pastaren kartutxoak ere salduko ditugu, kontsumitzaileek zerbait erosi behar izateko eta diru-sarreraren bat izan ahal izateko.

Hortaz aparte, orokorrean erosotasuna gustuko duten pertsonen ere produktu hau erosi nahiko dute, merkatuan ez dagoelako horrelakorik oraindik, edo gutxienez, ez delako globalki ezaguna. Horregatik, publiko orokorraren interesa, hain handia ez bada ere, espero dugu.

Gure helburu nagusia, lehen esan bezala, praktikotasuna eta berritasuna da. Batetik, praktikoa dela argi dago, azkenean guri lana erraztuko digulako: guk pasta komuneko kaxoitik atera, pasta ireki eta indarra egin beharrean produktua ateratzeko, botoi bati eman beharko diogu, besterik ez. Bestetik, ingurumenarekin kontziente gara, eta horregatik, material ekologikoekin egin nahi dugu produktua, guk munduko kutsaduran plastikoek bezain beste ez parte hartzeko.

Printzipioz, produktu honek ez duela arrisku handirik uste dugu, izan ere, hortzetako-eskuil arrunt batek ez du arriskurik, eta azkenean ez da horren ezberdina izango, bakarrik "eguneratze" moduko bat izango da. Gainera, haurrek erabiltzen duten produktua da, eta nolabaiteko arriskua izango balute (hortzetako-eskuil arruntek), produktua ez lukete erabiliko.

Aipatutako guztia laburbilduz, esan genezake proposamen hau errealitate bihurtuko balitz bidea ez litzatekeela erraza izango, baina proiektu arrakastatsu bat izan daiteke, oro har, produktua gizarte honetako pertsona askorentzat bideratuta dagoelako eta baita ere ekonomikoa delako. Gainera, gure egunerokotasunean gauzak errazten ditu. Ondorioz, produktu hau honela definitu daiteke: praktikoa eta denontzat eskuragarria.